

## BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

639

*EBAZPENA, 2015eko abenduaren 30ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Kultura Ondarea babestu eta zaintzeko diru-laguntzak emateko dena.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko urriaren 1eko Aginduaren bidez (urriaren 5eko EHAA, 189. zk.), Euskal Kultura Ondarea babestu eta zaintzeko diru-laguntzetarako deialdia arautu zen, bai eta diru-laguntza horiek emateko araubidea finkatu ere.

Eskabideak aurkezteko epea, aipaturiko aginduaren 8. artikulua araberera, 2015eko azaroaren 5ean amaitu zen.

Aginduko 15. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea bildu eta eskabideak aztertu ondoren, laguntzak esleitzeko ebazpen-proposamena eman zuen 2015eko azaroaren 17an, eta horrekin batera, Aginduaren 17. eta 18. artikuluen arabera balorazio-irizpideak aditzera eman zituen.

Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita eta Aginduaren 19. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren eskatzaileei bertan agertzen diren diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.– Diru-laguntza ukatzea II. eranskinean agertzen diren pertsona eta erakundeei, bertan azaltzen diren arrazoiak direla eta.

Hirugarrena.– Onuradunak diru-laguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzen mende geratzen dira, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mende ere.

Laugarrena.– Diruz lagundutako jarduera guztiak amaitzeko epea 2017ko abenduaren 31n bukatuko da, diru-laguntza hauek arautzen dituen Aginduaren 8. artikuluekin bat etorritik. Dena dela, diruz lagundutako proiektuek 2015eko urtealdian hasi behar dute edota dagoeneko hasiak egon.

Emandako diru-laguntzen justifikazioa, likidazioa eta ordainketa egiteko, Aginduaren 22., 23. eta 24. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio. Era berean, kontuan hartu beharko da diruz lagundutako proiektuak, gehienez ere, data hauetarako justifikatu beharko direla:

2015ean gauzatzeko proiektuak: 2016ko urtarrilaren 15a baino lehen.

2015-2016 epealdian gauzatzeko proiektuak: 2015ean gauzatutako jarduerak, 2016ko urtarrilaren 15a baino lehen; 2016an gauzatutako jarduerak, 2017ko urtarrilaren 15a baino lehen.

2015-2017 epealdian gauzatzeko proiektuak: 2015ean gauzatutako jarduerak, 2016ko urtarrilaren 15a baino lehen; 2016an gauzatutako jarduerak, 2017ko urtarrilaren 15a baino lehen; 2017an gauzatutako jarduerak, 2018ko urtarrilaren 15a baino lehen.

Diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla justifikatzeko, jarduera horien aurrekontua hartuko da ardatzat (diru-laguntzak emateko ebazpen honetan zehaztutakoa), eta, horrekin batera, aginduaren 23. artikuluan ezarritako gainerako alderdiak.

Bosgarrena.– Agindu honen babesean eman beharreko diru-laguntzak zatika ordainduko dira, era honetan:

a) Lehenengo zatian, emandako diru-laguntzaren herena ordainduko da, behin 20.1 artikuluan aipatutako epea igaro ondoren, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainontzekoa ebazpen honen I. eranskinean ezarritako zatikatzearen arabera ordainduko da, gastua justifikatu ondoren.

Seigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua ezartzen duenarekin bat.

#### AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jasotzen duten egunaren biharamunetik kontatuta edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 30a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,  
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2016ko otsailaren 12a, ostirala

I. ERANSKINA  
ONARTUTAKO ESKABIDEAK

Onuraduna	Proiektua	Diruz laguntzeko zenbatekoa	Emandakoa	2015	2016	2017
Alberdi Lonbide, Xabier	Done Jakue bideko elementuen balioa nabarmentzea: Aganduruko galtzada Orion.	25.668,94	25.517,00	8.505,67	8.505,67	8.505,66
Esteka elkartea	Lekeitioko Goyogana ontziolan jarduera hastea	2.078,00	2.066,00	688,67	688,67	688,66
Anoetako Udala	Basagaingo herrixkako gune arkeologikoaren balioa nabarmentzea	57.788,44	57.446,00	19.148,67	19.148,67	19.148,66
Azpeitiko Udala	Basozabal Jauregiaren zaharberritze proiektua	300.000,00	298.225,00	99.408,34	99.408,34	99.408,32
Azpeitiko Udala	Maddalenako Ermita ondasunaren babes-eremuan sartzen diren guneak urbanizatzea eta berreskuratzea	24.736,65	24.590,00	8.196,67	8.196,67	8.196,66
Balmasedako Udala	Balmasedako antzinako gazteluaren kokalekuaren balioa nabarmentzea	32.000,00	31.811,00	10.603,67	10.603,67	10.603,66
Bergarako Udala	Bergarako antzinako Jesuiten eliza edo Bergarako Errege Seminarioaren eliza berreskuratzea eta berreskuratzea	300.000,00	298.225,00	99.408,33	99.408,33	99.408,34
Bilboko Udala	San Frantzisko komentuari hondakinetakoa klaustroa estaltzea, Mariaren Bihotza plazan	53.546,68	53.230,00	17.743,33	17.743,33	17.743,34
Debako udala	Debatik igarotzen den zatian, Done Jakue bidearen galtzadak tarteen balioa nabarmentzea	15.125,00	15.036,00	5.012,00	5.012,00	5.012,00
Eako Udala	Urtubiagako burdinolaren balioa nabarmentzea eta gizarteratzea	39.747,36	39.512,00	13.170,67	13.170,67	13.170,66
Legazpiko Udala	Aguirre-Echeverria etxea berreskuratzea	300.000,00	298.225,00	99.408,33	99.408,33	99.408,34
Lekeitioko Udala	Abaroa Jauregia berreskuratzea	132.945,95	132.159,00	44.053,00	44.053,00	44.053,00
Laudioko Udala	Ermuko Andra Mariako multzoaren balioa nabarmentzen eta hedatzen jarraitzea	46.238,00	45.964,00	15.321,33	15.321,33	15.321,34
Muskizko Udala	Muskizko meatze-barrutiak aktibatzea eta haien balioa nabarmentzea	92.222,50	91.677,00	30.559,00	30.559,00	30.559,00

2016ko otsailaren 12a, ostirala

Onuraduna	Proiektua	Diruz laguntzeko zenbatekoa	Emandakoa	2015	2016	2017
Sestaoko Udala	Sestaoko Labe Garaia babestea, hedatzea eta sustatzea	65.340,00	64.953,00	21.651,00	21.651,00	21.651,00
Zalduondoko Udala	San Adriango ermita birgaitzea, erromesen aterpetxe izateko	94.187,28	93.630,00	31.210,00	31.210,00	31.210,00
Zambranako Udala	Portillako monumentu-multzoaren balioa nabarmentzea eta sustatzea	298.829,00	297.061,00	99.020,33	99.020,33	99.020,34
Karrantza Haranako Udala	Dolomitas-en onclareari balioa ematea	85.910,00	85.402,00	28.467,33	28.467,33	28.467,34
Celaya Güenaga, M <sup>a</sup> Luz	Markina-Xemeingo Oxillain burdinolaren balioa nabarmentzea	37.163,00	36.943,00	12.314,33	12.314,33	12.314,34
Santa Maria Katedrala Fundazioa	Santa Maria Katedralako kriptaren argiztatze museistikoa	80.000,00	79.527,00	26.509,00	26.509,00	26.509,00
Etxezarraga Ortuondo, Iosu	Done Jakue bideari lotutako elementuen balioa nabarmentzea: Santa Barbarako galtzada Zarautzen	22.921,03	22.785,00	7.595,00	7.595,00	7.595,00
Añanako Gatz Harana Fundazioa	Añanako Gatz Haraneko gune arkeologikoa sendotzea eta haren balioa nabarmentzea, eta monumentu-multzoarekin bateraezina diren elementuak kentzea	53.450,61	53.134,00	17.711,33	17.711,33	17.711,34
Faiduko Administrazio Batzarra	Nuestra Señora de la Peña ermita oso-osorik zaharberritzea eta haren balioa nabarmentzea	22.246,45	22.115,00	7.371,67	7.371,67	7.371,66
Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa	Bengola burdinolaren aztarna arkeologikoen balioa nabarmentzea	27.225,01	27.064,00	9.021,33	9.021,33	9.021,34
Lurrailan, S.L.	Mulisko Gaina aztarnategi megalitikoaren balioa nabarmentzea	44.649,00	44.385,00	14.795,00	14.795,00	14.795,00
Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa	Bizkaiko Lurraide Historikoko erretaulen balioa nabarmentzea eta hedatzea, teknologia berrien bidez	45.375,00	45.106,00	15.035,33	15.035,33	15.035,34
Orbela, Investigación y Educación Ambiental, S.L.	Done Jakue bidea Idiazabal. Artsuagats eta Uzhangako galtzadak	40.068,00	39.831,00	13.277,00	13.277,00	13.277,00
Zallako San Migel Goiaingerua parrokia.	San Pedro Zarikete ermita berrerrabiltzeko jarduketan 2. fasea	18.342,66	18.234,00	6.078,00	6.078,00	6.078,00
Zamacola Aristegi, M <sup>a</sup> Jesús Ildefonsa	Zamacola lantegi-etxearen balioa nabarmentzea	56.481,49	56.147,00	18.715,67	18.715,67	18.715,66
GUZTIRA		2.414.286,15	2.400.000,00	800.000,00	800.000,00	800.000,00

## II. ERANSKINA

## BAZTERTUTAKO ESKABIDEAK

1.1.– Aginduan eskatzen den moduan, kalifikatu eta inbentariatu gabe dauden elementuetan edo babesteko espedientea hasteko espedienterik ez duten elementuetan egin beharreko esku-hartzeak direlako, ez dira baloratu proiektu hauek:

– Domaikako Administrazio Batzarra: «Domaikako errota eta ubidea berritzea».

1.2.– Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 102.2 artikuluan jasotako jarduketak direlako eta lurralde historikoetan foru aldundien eskumenekoak direlako, Aginduaren 1. artikuluan ezartzen denez, ez dira baloratu honako proiektu hauek:

– Alegria-Dulantziko Administrazio Batzarra: «Aiarako Andre Maria ermitan hezetasunak saihesteko jarduketak».

– Tolosako Udala: «Triangelu Plazan kokatutako Gaztelako Atearen fatxadak eta estalkia berreskuratzea».

– Laguardiako udala: «Samaniegotarren etxea birgaitzea beste erabilera bat emateko».

– Debako Udala: «San Roke ermitaren balioa nabarmentzea».

– Irungo Udala: «Behobiako Aduana zaharra birgaitzea».

1.3.– Aginduko 2. artikuluan jasotako kasuetan sartzen ez diren proiektuak izateagatik, ez dira baloratu honako proiektu hauek:

– Navaridasko Udala: «Sodupe etxea birgaitzea eta haren balioa nabarmentzea».

– Zuiako Udala: «Oroko Andra Mariaren Santutegiko kanpaia birgaldatzea».

– Getariako Udala: «Getariako Hirigune Historikoaren barneko elementuak balorizatzeko egitasmoa».

– Segurako Udala: «Ama Jasokundearen parrokiaren inguruko lurren ikerketa geoteknikoa».

– Haizelan kooperatiba-sozietatea: «Museoen eta interpretazio-zentroen sarearen bidezko kultur ondarearen sustapena eta hedapena aztertzea».

– Azkoitiko Udala: «Azkoitiko Insausti Jauregiko kaperako Espiritu Santuaren Erretaularen zaharberritze lanak».

– Sociedad Gestora Quartier, S.L.: «Bilboko hirigune historikoan, Artekale 15ean, eraikina eraberritzea aterpetxea jartzeko».

– Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea: «Euskal baserrien balioa nabarmentzea».

– Bermeoko Udala: «Udaletxea berreraikitzeke plana».

– Orioko Udala: «Orioko herrigune historikoaren balioa nabarmentzea».

– Udaetxe kooperatiba-sozietatea: «Udaetxe berrerabiltzea».

– Bermeoko Udala: «Hurtado de Mendoza kalea berreskuratzeke plana».

– Amigos de San Prudencio kofradia: «San Prudentziori buruzko interpretazio-zentroa Armentian. San Prudentzio: Bakearen aingerua, Arabako zaindaria».

– Germinal kultur elkarte: «Muskizko San Julian elizaren balioa nabarmentzea eta haren azterketa globala».

– Errentegibel: «Tolosako Korreo kalea 13 birgaitzea eta bizitegi-erabilera ematea.»

– Arkeolan fundazioa: «EAEko hiribilduen gune arkeologikoetan Erdi Aroko babes-hobi urez beteen balioa nabarmentzea».

1.4.– Proiektua ez denez 2015eko ekitaldian hasi, Aginduko 8. artikuluan eskatzen denez, ez da baloratu honako proiektu hau:

– Alegría-Dulantziko Udala: «Alegría-Dulantziko Euskal Herria kaleko 2. zenbakian egin beharreko jarduketak, antolamenduz kanpoko egoera desagerrarazteko».

1.5.– Jardueraren proiektu edo memoria zehaztu bat ez aurkeztearren, ez dira baloratu honako proiektu hauek:

– M.<sup>a</sup> Isabel Estrada Braceras: «Arespalditzako Atxa jauregia berrerabiltzea eta haren balioa nabarmentzea». Ez du proiekturik aurkeztu, ezpada asmoen adierazpen hutsa.

– Errenteriako Udala: «Orereta kaleko 5. zenbakiko behe solairuko lokala berritzea Krearte eremurako» eta «Krearte eremurako Orereta kaleko 5. zenbakiko behe solairuko lokala berritzearen alde aurreko azterketa arkeologikoa». Bi espedienteak elkarren artean loturik daude. Ez dute proiekturik aurkeztu, baizik eta proposatutako jarduera egingo litzatekeen lokalaren alokairuari buruzko asmoen adierazpen hutsa besterik ez.

– M.<sup>a</sup> Teresa Murga: «Murga dorretxea egokitzea, bisita gidatueterako eta museo bihurtzeko». Hainbat jarduera aurkeztu ditu, baina ez da, berez, proiektu bat. Gainera, bertan, diruz laguntzeko ez diren jarduera batzuk sartu ditu.

1.6.– Eskabidea epez kanpo aurkeztearren, ez da baloratu honako proiektu hau:

– Urduñako Udala: «Esku-hartze arkeologikoa Zaharra 6an. Urduñako harresiaren azterketa».

1.7.– Diru-laguntzak arautzen dituen 16. artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik:

– Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoa: «Done Jakue bideari lotutako elizen balioak hedatzea eta balio horiek nabarmentzea, teknologia berrien bidez».

– Learri, S.A.: «Lea ibaiko Industria Paisaiaren Monumentu Multzoko elementuen balioa nabarmentzea».

– Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea: «Kultur ondarearen balioa nabarmentzeko protokolo integrala: Haizkoko ibilbide megalitikoa».

– Zallako Udala: «Done Jakue bideari lotutako elementuak sendotzeko eta elementu horiei balioa emateko jarduerak».

– Errenteriako Udala: «Kapitain-etxea jantzi museo izateko kontrol arkeologikoa eta zundaketak» eta «Kapitain-etxea jantzi museo izateko birgaitze proiektua».

Eskoriatzako Udala: «Atxorrotzeko Gazteluaren inbentarioa eta gazteluaren balioa nabarmentzea».

– Zeraingo Udala: «Done Jakue bidea Zeraindik».

– Donostiako Gotzaindegia: «Gipuzkoan Done Jakue bideari lotutako ermiten balioa nabarmentzea. San Adriango Tuneleko bidea».